

EUSKARAZKO HAUR ETA GAZTE LITERATURA



Leire Bilbao

Xomorropoemak eta beste piztia batzuk

Pamiela

18.000 euroko saria eta 4.000 euro, lan saritua beste hizkuntza batean argitaratzen bada.

Epaimahaia:


Igor Idoeta, epaimahaiburua

Elisabet Mas, epaimahaikidea

Mikel Aierbe, epaimahaikidea

Irati Zaldua, epaimahaikidea

Imanol Mercero, epaimahaikidea



2017

XXI edizioa

EUSKADI LITERATURASARIAK
PREMIOS LITERATURA EUSKADI

Epaimahaiak ikusitako merituak

Xomorroi dei ozen bat egiten zaie bestiario poetiko honetan, ez ordea intsektuei -maitasun keinu askoren xede izanik ere liburuan zehar-, baizik eta gure inguruko txikitxoei, gure "xomorrotxoei". Haur literaturak behar duen tonua eta pultsuari ederki heldu dio obra honek, izenburutik bertatik. Hizkuntzarekin jolastera inguratzeak gonbidapena da, eta hizketarekin ere bai, boz gora irakurrita dituen bertuteak are nabarmenagoak egiten direlako.

Jolasa, irribarrea, irudimena, elkarren abaroa, denak dira aintzat hartzeko baloreak -ezinbestekoak agian- haurrengana inguratzen garenean, eta hauek guztiak eskaintzen ditu liburu honek. Obra koherentea da, trinkoa, poema guztien artean

aldarrikapen orokor bat eskaintzen duena. Bat eginda daude euren tonu umoretsuan, euren jarrera jostalarian, eta, hala ere, poema bakoitza gai da bere anekdota partikularri eusteko, bere originaltasun partikularra aldarrikatzeko.

Tradiziotik datozen baliabideak maisutasunez erabili dituela iruditu zaigu, gure gaurko testuingurura obra fresko eta berritzaile bat ekartzeko. Ez du ezer berririk asmatu, lehendik ere hor zegoena berrerabili du, baina emaitza paregabea suertatu da, eta horixe goraipatzen dugu. Aldian aldi, zomorro eta piztia batzuei gertatzen zaizkien gorabeherak kontatzen zaizkigu, harridura sor dezaketen testuinguruak deskribatuta, eta amaierarako ezustea gordeta.

Leire Bilbao



Ondarroa, 1978.

Haur literaturan ibilbide oparoa izateaz gain, helduentzako bi poema liburu ditu: **Ezkatak** (Susa, 2006) eta **Scanner** (Susa, 201). Poema horietako batzuk antologia ezberdinetan jaso eta hainbat hizkuntzatar itzuliak izan dira. Kantu ere bihurtu dituzte zenbat musikarik.

Hauek argitaratutako liburu batzuk:)

Armairu barruan ipuinak irakurtzen zituen neska (Erein, 2010)

Euli bat dut bihotzean (Elkar, 2013)

Gerrak ez du izenik (Pamiela, premio Etxepare 2013)

Doministripu jauna (Elkar, 2014).

Xomorropoemak eta beste piztia batzuk

Poemak, xomorroak bezala, ustekabeen agertzen dira. Eta ziztatu egiten dute. Eta kosk. Eta azalean koskor txikiak utzi, egunetan joaten ez direnak. Poema batzuk hegan egiten dute. Beste batzuk igeri. Badira narrasean doazenak. Baita orria zabaldu eta orro egiten dutenak ere. Poema batzuk beltzak dira. Badaude berdeak, gorriak edo beste kolore batzuetakoak. Poema batzuk lau hanka dituzte, bestetzuk sei, zortzi edota ehun. Poemak, azken finean, xomorroak bezalakoak baitira. Eta kontuz, batzuetan xomorro horiek piztia bihurtzen direlako.



2017

XXI edizioa

EUSKADILITERATURASARIAK
PREMIOS LITERATURA EUSKADI